

KOSTUAK

Berrijolastu proiektua martxan jartzeko eta gero funtzionatzen jarraitzeko, hainbat kostu izango ditugu. Kostuak bi zatitan banatzen dira: hasierako inbertsioa eta negozioa martxan dagoenean sortzen diren kostuak.

1. Hasierako inbertsioa

Hasierako inbertsioa da negozioa abian jartzeko behar dugun dirua. Hau da, proiektua hasteko lehenengo egin beharreko gastuak.

Hasieran izango ditugun kostu nagusiak hauek dira:

- Lokal edo biltegi txiki baten alokairua (hasierako hilabeteak).
- Jostailuak jasotzeko kutxa bereziak, Juguettos dendetan jartzeko.
- Garbiketa eta desinfekzio materiala, jostailuak seguruak izan daitezen.
- Tresna sinpleak, jostailuak konpontzeko.
- Markaren irudia eta kartelak, jendeak proiektua ezagutzeko.
- Garraio gastuak, jostailuak dendetatik gure lokalera eramateko.

Hasierako inbertsioa ez da oso handia izango, 1500-2000€ ingurukoa, baina beharrezkoa da proiektua serio hasteko.

2. Negozioa martxan dagoenean

Behin Berrijolastu martxan dagoenean, kostuak bi motatakoak izango dira: kostu finkoak eta kostu aldagarriak.

KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak dira hilero berdin ordaindu behar direnak, salmenta gehiago edo gutxiago izan.

- Lokalaren alokairua 600€ hilero
- Argia, ura eta internet 150 € hilero
- Langileen soldatak 350 € hilero
- Aseguruak 50€ hilero
- Komunikazio gastuak (telefonoa, webgunea) 50€ hilero

Totala: 1200€ hilero

KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak dira jardueraren arabera aldatzen direnak.

- Garraio gehiago edo gutxiago, jasotzen diren jostailuen arabera. 150€ hilero
- Garbiketa material gehiago, jostailu gehiago badaude. 100€ hilero
- Ontziak edo poltsak, jostailuak saltzeko. 50€ hilero

- Publizitatea, kanpaina bereziak egiten direnean. 100€ hilero

Totala: 400€ hilero

3. Bestelako kostuak (ingurumen eta sozialak)

Berrizolatu proiektuak baditu bestelako kostuak ere, nahiz eta dirutan zuzenean neurtzen ez diren:

- Ingurumen kostuak: garraioak kutsadura pixka bat sortzen du, baina jostailuak berrerabiltzeak askoz gehiago murrizten du plastiko-hondakina. 25€ inguru hilero
- Kostu sozialak: denbora eta esfortzua behar dira proiektua ondo egiteko, baina gizartearentzat onura handiak sortzen ditu. 25€ inguru hilero

Ondorioz, kalkulatzeko da Berrizolatu proiektuak 1.500–2.000 euro inguruko hasierako inbertsioa beharko duela, eta hilean 2.000 euro inguruko kostuak izango dituela. Kopuru hori egokia da proiektu txiki eta jasangarri batentzat, bai ekonomikoki bai gizarte- eta ingurumen-ikuspegitik.